

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urriaren 4a

\*



## Leitzako ahozko tradizioa

■ Urte askotan Leitzako ahozko tradizioan eta kantutegian aztarrika ibili eta gero, *Leitzako errege-erreginak* liburua kaleratu du Patziku Perurenak. 1850-1950 bitartean Leitzan gertatutakoak eta horien protagonistek

esandakoak eta kantatutakoak biltzeaz gain, argazki zahar ugari eta dokumentu ofizialen testigantza izan du lagun. Ahotik belarrirako tradizioaren lekuko proposa da bere lana. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



## Euskal gazteria guztien ahotan

Azken boladan euskal gazteria guztien ahotan dago. Zenbait alderdi politikok bere indarrak horretan zentratu ditu, zer erranik ez telebistak. «Vandalismo, encapuchados, delincuencia juvenil...». Horrelako hitzak egunerokotasunean murgildu dira, honekin guztia-ekin, kale borrokaren egiazko izaera baztertu nahi dutelarik.

Kale borroka bertze edozein borroka bezain legitimoa da Euskal Herriaren eraikuntzaren bidean, kontuan izanik bere gibelean zer gordetzen duen, berau zerk bultzatzen duen. Baina zenbat alderdi politiko aditu dugu horri buruz solasten? Eta telebistak aipatu al du zerbait horren inguruan? Herri baten nortasuna, herri baten eskubideak zan-

patuta daude baina horrek ez du inporta.

Herri batek bere eskubideen alde borrokatzeko bide ezberdinak hartu behar izan ditu, guztiak legitimoak, baina horrek ez du inporta. Gazteriak herri honetik konpromezua erakusten du, konpromezu maila eta mota anitza delarik, baina horrek ez du inporta.

Lehenxeago aipatu bezala euskal gazteria guztien ahotan dago baina aho batzuek diotena bakarrik aditzen dugu.

Kale borroka existitzen da baina gatazkaren aitzinean har daitekeen borroka mota bat da, bertze edozein bezain legitimoa, gaur egun bizi dugun egoeraren ondorio garbia.

Bertalde, komeni da aipatzea, euskal gazteriaren inguruko guztia ez dela hain ezaguna. Zenbatek aipatzen du Euskal Herriko bi gaztetatik bat langabezian dagoela? Edota azken boladan eguneko gazte bat baino gehiago atxilotu dutela? X

**OHARRA:** Joan den asteko Nafarkariako azaleko iritzi artikulua Aingeru Epaltzak sinatua agertu zen gure oker baten erruz, Bingen Amadozek idatzia baitzen. Hutsegite honengatik barkamena eskatu nahi diegu idazleoi eta gure irakurle guztiei.



**GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Gares:** Gamma Ray, Stratovarius eta Rage taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak sei, Funda Mental aretoan. Sarrerak 2.500 pezetan izanen dira salgai.

**Berriojar:** Tahures Zurdos taldearen musika zuzenean entzungai izanen da Artsaia Music Cluben, gaueko hamaiketarik aurrera. Sarrera aurretik erosiz gero 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko dira, eta txarteldegietan bertan erosita 1.200 (48 libera). Bestalde, gaur bertan, hilak lau, ikasturte berriari ongi etorria egiteko jaia eginen dute Artsaian.

**Doneztebe:** Nahi ta Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du larunbatean, hilak bost, Bordatxo dantzatokian.

**Iruñea:** Willy Devillek kontzertua eskainiko du igandean, hilak sei, Anaitasuna kiroldegian, gaueko bederatzietatik aurrera. Sarrerak 2.500 pezetan izanen dira salgai.

**ERAKUSKETAK**

**Lodosa:** Mugarik Gabeko Medikak taldearen argazki erakusketa ikusgai izanen da herriko Kultur Etxean urriaren 13ra arte.

**Iruñea:** 70eko hamarkadan Madrilen figurazioa landu zuten zortzi artistaren lanak ikusgai izanen dira Nafarroako museoan urriaren 27ra arte. Museoa astelehenera itxita egoten da, asteartetik larunbatera 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara zabalik, eta igande eta jaiegunetan 11.00etatik 14.00etara.

**Iruñea:** Alicia Otaegiren *Artefacto* izeneko instalazioa hilaren 27ra arte ikusgai izanen da Gotorlekuan.

**LEHIAKETAK**

**Barañain:** VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaletxeko Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da, eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

**IKASTAROAK**

**Iruñerria:** AEK-k urriaren zazpilara arte luzatu du matrikula egiteko epea Iruñerrian dituen euskaltegietan.

**Iruñea:** Aisialdiko begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxintxa aisialdi eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren bederatzian hasi eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 21 14 78 telefonora.

**Iruñea:** Esperanto ikastaroa antolatu du Nafarroako Esperanto Elkarteak. Ikastaroa urriaren hasi eta abenduan amaituko da. Informazio gehiago eskuratzeko galdetu Gaztediaren Etxean (Zangoza kalea z/g).

*nafar kronika*

Alberto Barandiaran

**Egonkortasuna kulturean**

**P**roiektu handiek ez dute bat-batekotasunik edaten; egonkortasuna, lasaitasuna behar dute garatu eta aurrera egin ahal izateko, eta dudarik ez da Nafarroako Gobernuaren aldaketak susmo eta zalantza handiak sortu zituela administrazioaren ezezik gizartearen arlo zabalean ere, eginiko lanek oztopo berriak aurkitu edo norabide aldaketak —batzuentzat kaltegarriak, besteentzat behar-beharrezkoak— izango lituzketelakoan.

Kultura da politikak baldintzatzen duten arlo horietako bat. Askotan bigarren mailako aurrekontuak eztabaidatzerakoan edo ildo berrien ardatzak aipatzen direnean, bereziki behar ditu epe luzerako asmoak, bereziki beharrezkoak dutelako talde eta erakunde askok administrazioaren laguntza proiektu gehienetarako. Jakina denez, kultura oso gutxitan baita errentagarria.

Hori dela eta, arnasa hartu ahal izan dute kultur munduan dabilzan Nafarroako talde askok Principe de Viana erakunde aurreko taldeak jarraitu egingo duela jakin denean. Txarki edo ongi, Tomas Yerrok urte batzuk eman ditu dagoeneko lanean Mercadereseko egoitzan, eta, aldaketa oso nabarmena gertatu ezean, jarraipenak emango dio aukera eskuar-

tean dituen proiektuak portu onera eramateko.

Lehendabiziko emaitzak udatik bueltan nabari dira, kasurako dantza taldeei eman babes, kasurako antzerki taldeek estreinatutako dantza berriak. Jose Lainezen Pie Juntoapie taldeak, horrela, estreinako aldiz lortu du kultur administrazioaren dirulaguntza bat bere azken ekoizpenerako. Aldaketa bat da, frankotan kexu azaldu delako dantza garaikidean maisu izan den nafarra erakunde publikoen axola eskasaz. Halabere, duela bi urtetik hona Txantreako egoitza berriari ari dira lanean Nafarroako Dantza Eskolakoak, eta emaitza ere ematen hasia da zentroa, Lainezen ingurutik sortu den Trompel'oeil taldea bere lehendabiziko lanak aurkezten hasia delako.

Antzerki taldeen kasuan, egoera ona antzematen dela ezin uka, eta asteburu honetan hasiko den udazkeneko zikloan gure lurraldeko bost talde izango dira azken produkzioak aurkezteko.

Adibideak dira, baina adibide interesgarriak. Interesgarria den bezala jakitea Nafarroako Jaialdiei buruz erakunde egiten ari den gogoetak izango duela aurrera egitea, eta, bi bakarrik aipatzearen, Oteiza Fundazioa garatu ahal izango dela administrazioan aurkitu duen jarrera onaz baliatuta.



*asteko pertsonaiak*



Jose Lainez  
Dantza zuzendaria

■ Jose Lainezek zuzentzen duen Pie Juntoapie taldeak *Un día más* muntaia estreinatu zuen joan den asteazkenean Gaiarre antzokian, Nafarroako Gobernuak antolatutako Dantza Udazkenean zikloari hasiera emanez. Lainezek bere hasierako garaietara itzuli da ikuskari honen eskutik. Bere hitzetan, obra berri hau «dantza hutsa da, antzerkiarekin, literaturarekin edo poemekin gehiegi kezkatu gabe egindakoa». Lan honen etapa berri bati ekin dio Lainezen taldeak, lehendabiziko aldiz Principe de Viana erakundearen laguntza lortu baitu muntaia bat ekoizteko. Sinatutako kontratuaren arabera, muntaia zabaldu eta beste herrialdeetan ere estreinatzea izanen da taldearen lana. ■



Juanxo Fuertes  
Igerilaria

■ Iruñeko Alde Zaharreko semea den Juanxo Fuertes kirolari bikainak Iruñeko Udalaren omenaldia jaso zuen joan den asteazkenean. Fuertesek bost domina lortu zituen iragan diren Atlantako Joko Paraolimpikoetan. Gazteak, alkatearen ahotik berari zuzendutako laudorioak entzuteaz gain, Neptunoren estatua txiki bat, Sanferminetako zapia eta Tourreko hainbat oroigarri jaso zituen. Miguel Indurainen jarraitzaile amorratua da Fuertes. Atarrabiarra bezala, gogor entrenatzen diren horietakoa da. Atlantako jokoen ondoren hilabeteko atseden hartu eta gero, igerilekura itzuli da jada, entrenamenduetara, heldu den udan jokatu den Europako txapelketari begira. ■

*ahaztu gabe!*



**ANTZERKIA**

**Iruñea:** Bihartik aurrera, eta urtea amaitu arte, haurrentzako antzerki zikloa gozatzeko parada izanen da Gaiarre antzokian, Iruñeko Udalaren eskutik. Kukubiltxo Larrabetzuko antzerki taldeak irekiko du zikloa bihar, hilak bost, eguerdiko hamabietan. Talde bizkaitarrak Resurreccion Maria Azkuek bildutako euskal mitologiako ipuinetan oinarritutako *Behin bazen* muntaia taularatuko du. Horretan, txotxongiloak eta aktoreak elkarlanean aritzen dira, haurrak mitologiaren munduan murgiltzeko xedearrekin. Kukubiltxo sona handiko taldea da, besteak beste, Oskorriekin batera egin dituen muntaiak direla eta. Urriaren 19an Shanbu taldeak *Txuflo*, *Panplina* eta *Txufino* antzeztuko du. Azaroaren 23an Gus Marionetak taldearen *Marrubien printzesa* obra izanen da ikusgai. Azkenik, abenduaren 21ean Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek zikloko azken muntaia antzeztuko dute.

*adi!*

**Euskalerrria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenera ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

**Karrape Irratia FM 107,8**

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.



## Atarrabia

## Bederatzi jai egun bihartik aurrera

Musika, kirola, dantza eta bigantxak izanen dira egitarau zabaleko protagonistak

**B**ihar hasi eta datorren igandera bitartean ospatuko dituzte herriko bestak atarrabiarrek. Bestarako hamaika aukera ezberdin izanen dute horretarako propio prestatutako egitarau zabalarri esker. Kirolak, musika eta dantza izanen dira protagonista, beste hainbat gauzaren artean.

Erredakzioa / Iruñea

BIHAR eguerdian airean eztanda egingen du Atarrabiako jaien hasiera iragarriko duen altxaferoak. Herriko bestetako lehen uneak txistulari, gaitero eta kiliki eta erraldioen konpartsak alaituko dituzte, urtero legez. Une horretatik aurrera, algara bizia izanen da karraketan jaun eta jabe, datorren igandera bitartean.

Lehen egunean izanen da, hain zuzen, besta giroaz gozatzeko beste hamaika aukera. Besteak beste, kirolak izanen duen tarteari so eginez, futbola eta eskubaloia izanen dira protagonista arratsalde partean, batetik, eta herri kirolak eta pilota bestetik. Gau partean, arratsaldeko zazpietatik aurrera musika nagusituko da. Txarangak aterako dira lehendabizi eta guerdian Ostadar taldeak alaituko du giroa.

Bigarren eguna, igandekoa, goiz esnatuko da dianen soinuarekin. Hamaikak aldera, berriz, Meza Nagusia egingen dute San Andres Elizan, eta ondoren, prozesioa izanen da Errosarioko Amaren irudiarekin. Haurren-



Bederatzi jai egun izanen dituzte Atarrabiako herritarrek.

ARTXIBOKOA

tzako zinema, jota jaialdia eta kiliki eta erraldioen konpartsa-aren ateraldiaz gain, zezensuzkoa izanen da igandean ere. Gau partean, berriz, su festa eta dantzaldia.

Besta egun nagusiak asteburukoak badira ere, astean zehar egitarau mamitsua izanen dute Atarrabiako herritarrek ere aurtengoan. Astelehenean, adibidez, hilak 7, dianak eta bigantxak izanen dira goizeko protagonista. Arratsalde partean, berriz, zezensuzkoa, Zintzarri txaranga eta Drindots musika taldea. Gauean ere bestara itzuliko da Drindots taldea, mozerro dantzaldia alaitzeko.

Asteartekoan haurrentzako propio prestatutako egitarau zabala izanen da. Goizean haur parkea izanen da Atarrabiako Ultzama auzoan. Erraldioen konpartsaekin egoteko aukeraz gain, gainera, kukaña eta zezen mekanikoa izanen dira, baita arratsaldez haurrentzako zinema ere.

Gainontzeko herritarrek ere izanen dute zer egin. Arratsaldeko ordu bata eta erdietan, hain zuzen, urteroko saiheski jate herrikoia egingen dute Ultzama auzoan. Giro ederra sortzen da urtero-urtero egun honetan herritarren artean. Ongi bazkaldu ondoren, dantzatzeko parada

izanen dute arratsaldeko zortzietan lehendabizi eta guerditik aitzinera Ferrari taldearen eskutik.

Jaietako bigarren asteburura aliletuta, ostiralean, hilaren 11n, rock kontzertu bikaina izanen da jaietako txosnen eremuan, guerditik aurrera. Udaletxeko plazan, berriz, Egan Berrria taldeak joko du. Larunbat-igandekoa ere egitarau zabala izanen da. Honakoak dira aukera batzuek: kalejira, zezensuzkoa, su festa, mozerro lehiaketa eta Elurterren emanaldia larunbatean, eta txotxongilo jaialdia, zinema, kilikien agurra eta *Pobre de mí* igandean. X

## Ziordia

## Bizikleta Eguna izanen da Sakanan igandean

■ 39 kilometroko ibilbidea prestatu dute bertan

Erredakzioa / Iruñea

HIRUGARREN Bizikleta Eguna ospatuko dute igande honetan Sakanako zale guztiak. Sakanako Kirol Batzordeak eta Aralar eta Burunda txirrindularitza elkarteek 39 kilometroko ibilbidea prestatu dute horretarako. Parthehartzaileen helburua, baina, ez da helmugara beste inor baino lehenago ailegatzea, jaieguna izanen baita Sakanako bizikletariena. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, mendiko bizikleta eramatea komeni da.

Bizikletariak (hamar urtetik gorakoak) goizeko bederatzi eta erdietan aterako dira Ziordiatik. Helmuga, berriz, Arakil-Uharten

izanen da. Tartean, Olazti, Altsasu, Urdain, Iturmendi, Bakalku, Etxarri-Aranatz, Lizarraga, Dorrao, Unanu, Arbizu, Lakuntza eta Arruazutik pasatuko dira parthehartzaile guztiak bizikleten gainean. Lizarragan, hain zuzen ere, hamaiketako hartzeko geldituko dira txirrindulari guztiak.

Antolatzaileek erran dutenez, parte hartuko duten guztiak jasoko dute saria eta Ziordiarra joateko eta bertatik itzultzeko autobusa eta kamioi bat izanen dira prest. Halaber, ezustekoren bat gertatzen bada, DYA eta Foruzainak ibilbidean zehar izanen dira, baita txirrindulariaren atzetik doan autoa ere bai. X

## Barañain-Burlata

## Kultur egitarau komuna prestatu dute bi herriek

■ Erakusketa eta kontzertu zikloa izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

BARAÑAIN eta Burlatako Udalek kultur egitarau komuna prestatu dute. *Burlata / Barañain naturalmente* izenburuarekin. Kulturarekin batera, natura izanen da Barañain eta Burlatako programazio berri honen protagonista nagusia. Egitaraua, beraz, bi zati ezberdinetan banatuko dute.

Alde batetik, Umbra kultur kolektiboak margo erakusketa prestatu du eta hurrengo hilaren 15etik azaroaren 2ra bitartean egonen da zabalik, Burlatako zein Barañaingo kultur etxeetan.

Erakusketak, naturari buruz

Iruñerriko hamahiru artistak egindako lana biltzen du. Bestaldetik, kontzertu zikloa antolatu dute. Folk musikari dago-kionez, Ezpelur Folk, Txanbela eta Orquestina de Fabirol folk taldeak izanen dira protagonista nagusiak. Bi herrietan joko dute hiru taldeek: Txanbela hilaren 14an izanen da Burlatan eta 15ean Barañainean, Ezpelur Folk 16an Burlatan eta 17an Barañainean, eta Orquestina de Fabirol 18an Burlatan eta 19an Barañainean. Burlatan, Hilarion Es-lava Musika Eskolako auditorioan izanen dira emanaldiak; Barañainean, berriz, Udaletxeko erabilera anitzeko areto berezian. X

## Altsasu

## Eusko Ikaskuntzaren historiari buruz erakusketa zabaldu dute

■ Ondoren, Tafalla Elizondo, Iruñea eta Zangozan izanen da ikusgai

Erredakzioa / Iruñea

EUSKO IKASKUNTZAK (EI) Eusko Ikaskuntza. Iragana, oraina eta geroa izeneko erakusketa ibiltaria antolatu du. Erakunde honen 78 urteren historia jasotzen da bertan, liburu, kartel, argazki, eskuizkribu, panel, bideo eta abarren bidez. Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzaren laguntzaz antolatutako aipatu erakusketa, joan den asteartean zabaldu zuten Altsasun eta hilaren 16ra arte ikusgai izanen da herriko Gure Etxean. Asteagunetan, arratsaldeko 7etatik gaueko 10ak arte zabalduko ditu bere ateak, larunbatetan 6etatik 10ak arte, eta igandetan, eguerditik arratsaldeko 2ak arte eta 6etatik 10ak arte.

Erakusketaren osagarri, hiru hitzaldi antolatu ditu Eusko Ikaskuntzak ere. Hil honen 14an Josetxo Amilibia Eusko Ikaskuntzako kideak Altsasuko historiari buruz mintzatuko da, euskaraz. Amilibia, hain zuzen, Altsasuko historiari buruzko lana egiten ari da Nicolas Arbizurekin batera. Hurrengo egunean, Josetxo Amilibia izanen da hizlari berriz ere, Nicolas Arbizu eta Santi Zelairekin batera. Altsasuko historia izanen dute mintzagai ere, baina gaztelaniaz orainoan.

Hilaren 16an, azkenik, Jose Maria Satrustegi euskaltzainak *Sakana, herrien muga* izeneko hitzaldia eskainiko du euskaraz eta gaztelaniaz. Hiru hitzaldi hauek, Altsasuko erakusketa aretoan izanen dira, arratsaldeko 8etatik aurrera guztiak.

Eusko Ikaskuntza 1918. urtean sortu zen Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundien ekimenaren ondorioz, eta hasieratik, euskal kulturaren erreallatean eta bilakaeran interesaturik zeuden intelektual talde garrantzitsua bildu zuen. Mundu osoko euskaltzaleek euren laguntza eskaini zioten Eusko Ikaskuntzari, eta 1936. urte bitartean, sei kongresu antolatu zituen erakunde honek.

Erakunde honen historia jasotzen duen erakusketa Elizondora abiatuko da Altsasutik eta bertan izanen da hil horen 18tik 31ra bitartean. Ondoren, Zangozan izanen da ikusgai, azaroaren 2tik 13ra, eta Tafallan, berriz, azaroaren 21etik abenduaren 3ra bitartean. Herri hauetan, Kultur Etxean izanen da ikusgai erakusketa. X





Erasoteko eskolako umeak Aurtzikeneko atarian, 1944 aldean.

## Ahozko tradizioan aztarrika

Patziku Perurenak 'Leitzako errege erreginak' lana kaleratu berri du

**P**atziku Perurena idazleak 'Leitzako errege erreginak' lana kaleratu berri du. Liburuan Leitzako bertso-kanta zaharrak jaso ditu, joan den mendearen erdialdetik hasi eta honen erdialderainokoak, eta bide batez, istorio horien protagonista izan diren leitzarren gizarte giroa eta hainbat familiatan nabarmendu den ahozko tradizioa plazaratu ditu. Finean, herri literaturaren eredu aberatsa.

Irene Amizurieta / Leiza

BADA dozena bat urte Patziku Perurena idazlea Leitzaldeko bertso-kanta zaharrak biltzen hasi zela. Kanta tradizioak ba ote zen aurkitu nahirik, jasotako kanta zaharrak aztertu ezezik —nork sortu zituen, protagonistak, aditzera eman ziren garaiko gizarte giroa—, Leitzako familia batzuetan nabarmendu den ahozko belarrirako tradizioa ere jorratu du plazaratu berri duen *Leitzako errege erreginak* liburuan. Seihun orri pasatxo dituen lan mardula 1850-1950 bitartean Leitzan gertatutako gora-beheren eta aldaketan lekuko bizia da. Lana Leitzan *arrosnabar* deitutako molde zaharreko bertso-kanten bildumarekin hasten da. Aita Donostiak artotxuriketa kantak deitua —beharbada kantatzen ziren azkeneko medioa hori zelako— arrosnabarrak normalean amodio kantak dira, autore jakinik gabekoak, oinarri melodiko zaharra dute, eta garaian garaiko eta tokian tokiko

protagonistak hartuz berritu egiten dira. Patzikuren irudiko, XVIII. mendearen bukaeran sortutako usarioa da eta bat-bateko bertsolaritzaren aitzindari. Jarrain, arrosnabarren usarioaren lekuko izan diren Leitzako bertsolari protagonisten bizitza eta bertsoak paratu ditu. Etxe guztietan tradizioa badagoela antzeman du, baina, batzuk ahotik belarrirako tradizioan nabarmentzen direla konturaturik, Leitzan noiztik zeuden aztertu du. Hari honi jarraituz, hirugarren puska batean herriaren garai horretan nabarmendu ziren pertsonaia batzuetan sakondu du. Bertso kanten letzak ezezik, laugarren zatian batean Pontxito Iruiria irakasleak egindako bertso-kanten doinuak agertu ditu. Lana argazki zahar bilduma batekin bukatzen du: etxe esanguratsuak, baserri auzoetako eskolen lekukoak...


**Leitzako ahozko belarrirako tradizioaren bilketa lan izugarria** • Idazleak ahozko

rrirako tradizioa aztertzen lan izugarria egin du eta hainbat eta hainbat material pilatu du herri literaturaren lekuko. Ahozko materiala nagusi bada ere, leitzar batzuek utzitako argazkiak eta Jose Miguel Elosegi biologoak Leitzako topografiari buruz egindako lanetik hartutako etxeak eta baserriak ere testuaren euskarri eta lagungarri izan ditu. «Nik lan honetan buru-belarri kasik azken bi urteak eman ditut, material guztia bildu, moldatu, testuak ordenatu eta lana xehetasun guztiarekin sailkatzeko», dio. Era berean, Areso, Ezkurra, Goizuetak, Eratsun eta Leitzako artxiboak ukitu ditu, argitaratu dituen istorioen lekuko. Bere helburua hori ez bazen ere, liburuak jasotzen duen material gehiena baserri girokoa da. «Baserri giroko materiala sortu zait eta hori herritarrek huts bat sumatuko du. Hori ordezkatzeko herriko argazki zaharrak sartu ditut eta horien inguruko historia. Bertsoaren giro naturala jaso nahi izan dut, horiek biltzen ari nintzela konturatu nintzen badirela aspaldian Leitzan bizi diren familiek ahozko tradizioan sekulako aberastasuna dutenak, Zabaletarrak edo Zestautarrak esaterako».


*Leitzako errege erreginak* liburuak 1850-1950 urte tartean

Patziku Perurenak dioenez, «Leitzako bertso-kanta zaharrak bildu ditut. Nork sortu zituen eta aditzera eman ziren gizarte giroa aztertu dut»

Liburuak 1850 eta 1950 artean Leitzan gertatutako hainbat gora-behera eta aldaketa ere plazaratzen ditu. Baserri girotik industrializatorako bidea nola gauzatu zen



Patziku Perurenak urte morderdi material bila aztarrika ibili ondoren atara du liburuak.



Bordaberri baserria. XVII. mende arte Arribillagatarrak izan dira etxearen jabe.

egiteko enpresa eta Leitzako industrializazioaren motorra izan zeneko hastapenekin akitzeko.

**Ahozko kulturaren lekuko** • Geroztik aldaketa franko jasan du herriak, baina Patzikuren irudiko hori batez ere jendearen ikuspegian gertatu da. «Lehenago gizaldiz gizaldi bertako kultura jasotzen zuten jendeak eta lustre ofizialari halako ezeptizismoa zion, eta gaur kontrako gertatzen da, bertakoa erabat ignoratu egiten da eta kanpotik datorren informazio pasakorra eta ergel horri begira jarri da jendea eta ho-

Hizkuntzaren motorra ahozkoa da. Euskara torpetu eta trakestu egin da ofizialtasunak irentsi egin duelako; lan hau horren antidotoa litzateke nolabait»



Leitzako herriaren puska bat 1907an. Hainbat aldaketa izan ditu mende eskasean.

## Leitzako errege-erreginei omenaldia

LIBURUA ahozko belarrirako tradizioaren bidez kultura gorde duten errege-erreginei eskaini die Patziku Perurenak. Idazleak euskalduna estereotipatu egiten dela uste du, eta askoren irudiko, euskalduna behar duela izan sekulan baserriatik ateratzen den norbait. Ildo honetan, erregea eta euskaltasuna kontra-jarririk dira. Hori buelta emanez goizuetarrak «beren lurraldean lotuak, eta beren inguruarekin eta kulturarekin humanizatu den baino errege handiagorik ez dagoela munduan» uste du, eta hortik datorriko liburuari *Leitzako errege erreginak* izenburua. Patzikuk izenburuaren iturria gogoratu du. «Ni ♦ Goizuetan jaio eta ha-

mabi urtez bizi izan nintzen Karreto baserrian. Ni bizi nintzeneko baserriatik berrehun metroa, Artxantua izeneko baserrian, bizi ziren ahozko tradizio handia zuten aitona-amonak. Izengoitiz *Errege* eta *Erregina* deitzen zieten. Erregea Juan Zestau Leitzako Gorriteneko baserrikoa zen, eta erregina, bere andrea izandako Frantziska Zabaleta Xeorrenbordakoa». Haietako kontuak entzuten «txoratuta» egoten omen zen Patziku. Orduan sortu zitzaion grina gogoratuz eta haietako omenaldi egin nahiez paratu dio lanari *Leitzako errege erreginak* izenburua. «Hau bereziki omenaldia eginez, eta bidena-

bar hainbeste ahoz belarrirako kultura dakiten Leitzako aitona-amonet, jarri dut izena». Lekuko aproposagoa ezin paratu eta, 1970ean baserriko atarian aipatu bi zaharrei ateratako argazkiak ilustratzen du mende eskaseko Leitzako historia txikia biltzen duen lana. Modu berean, bertako jendeak duena estimatzen ikasteko balio izan dezan nahi luke. «Bertako jendeak ez du estimatzen dakiena, eta mesprezatu egiten du gizaldiz gizaldi ahoz belarrirako tradizioaren bidez jaso duen kultura. Gizaldiz gizaldi jaso duen kultura zer den ohartarazi nahi dut, eta ikasi dezan kanpotik datorren informazioak

ez duela ematen zaien garrantzirik». Patzikuren iritziz bada garaia bertan duguna behar bezala baloratzen hasteko eta herri literaturan bide gehiago urratzeko. «Unibertsalak izan nahi baldin badugu, lehendabizi tokian tokiko kultura ezagutu behar dugu, errege-erreginen historiak baino kultaegoak, noblekoak eta aberatsagoak diren historiak. Unibertsaltasunaren oinarria partikularitasuna baita, hori eduki gabe ez goaz inora». Finean, historia ofiziala norbait idatzi du eta leitzarrek hemen euren historia berezia kontatu dute dakiten moduan, gizaldiz gizaldi jaso duten ahoz belarrirako tradizioan.

Ofizialtasun horretan gelditu garetela uste dut. Euskarak batekotasuna galdu egin du, eta torpetu, trakestu egin da, hau da, azken finan hizkuntza berritze-ko motorra galdu egin da. Hizkuntzaren metafora eta erregiturak herriko eta zoragarriak bazertertu egin dira ofizialtasunak irentsi egin gaituelako». Ildo horretan, Patzikuk liburuak guzti horren «antidoto» bezala sortu du, eta Leitzan ezezik, Euskal Herriko bazter askotan oraindik bizirik dagoen ahoz belarrirako tradizioak «zenbateko balio» duen ohartarazi nahi luke.

*Leitzako errege erreginak* liburuagatik 200.000 pezeta bakarrik jaso ditu, Principe de Viana Nafarroako Gobernuak erakunde emanak. Idazleak Euskaltzaindiak ematen duen saiakera sarira aurkeztu zuen 1994ean baina ez zuen irabazi. Nolanahi ere, gaila oso lokala izan arren, bazuela interes handia erantzun zion Euskaltzaindiak. Gauzak horrela, lana publikatzeko aurreko urtean hutsik gelditu zuen saiakera sariaren dirua erabiliko zutela ziurtatu zion erakundeak. Azkenean, argitalpe-

neko ardura eta gastuak Bilbao Bizkaia Kutxak egin dizkio baina idazleak ez du jasoko salmenten-gatik sosik ere. «Lana egiten duen kulturek ez du kristorik kobratzen eta bitartekariak irabaziaz ateratzen dituzte», dio haserre. Bertalde, eta liburu Leitzako gora-beherak kontatzen dituela aintzat hartuz, azken bi legegintzaldiotan herriaren alkate izandako Juan Oronoz eta Mikel Illarregiren jarrera ere kritikatu du, ez dutelako ez interesik azaldu lanagatik ez dirulaguntza emateko biderik jarri. X

«Lanagatik Principe de Vianak emandako 200.000 pezeta bakarrik jaso ditut eta argitalpen gastuak BBK-k egin ditu. Nik ez dut liburuagatik beste dirurik jasoko»

**Dirulaguntzak non ote?** • Patziku kontent dago egin duen lanagatik, baina badu haserre egoteko arrazoirik ere. Ate asko jo du lana egiteko dirulaguntza eske; deus gutxi lortu, ordea.



## Xanti Begiristain

Goenkale,  
herri bitxia

■ Euskal herrian telebista euskaraz ikus-entzuteko ez dugu aukera handirik. Eta are gutxiago oraindik Iparraldean eta Nafarroan. Iruñean, esate baterako, ETB1ez landa, Telenavarrak egunero (asteburuak kenduta) eskaintzen digu minutu beteko laburpena euskaraz, programaren bukaran, eta badaezpada ere, azpigitulu erdaldunekin; oso eskuzabalak dira Telenavarrakoak, ez da hala?

ETB2 oso gutxitan jartzen dut, baina ikusten dudana gehienetan erdara batuan aritzen dira. Entzun izan dut esaten ETB2an botatzen ote dituzten programak euskaraz haurrentzat. Ez dakit, ezin dut ez baleztatu ezta ezeztatu ere, ez baitut ongi ezagutzen bere programazio osoa, baina neronek ikusi dudana araberaren arabera, behintzat esan liteke *Euskal Telebista* izea bere ere sobera samarrean ote duen edo. Euskal Herriko toki-izen gehienak ere erdaraz entzuten direlakoan nago, eta beste alde batetik, hor, ETB2an, neronek behinik behin, artista eta gonbidatu kanpotar askotxo sumatzen dit.

Errepikatzen dut ez dudala oso ongi ezagutzen ETB2ren jokabidea, baina ez dakit ba hori ote den jokamoldurik egokiena, Euskal Herrian bizi diren erdaldunak errealitate euskaldunera hurbiltzeko. Edo agian ez ote zen hori asmoa ETB2 sortu zutenean? Apika ni oker egongo naiz...

Baina itzul nadin hasierako gaira. Bai, aitortu behar dut Goenkale ikusten dudala, eta gustora asko gainera. Gauza onak eta positiboak izan behar ditu inolako zalantzarik gabe. Argi dago bere generoan lortu eta jarraitzen duela erdiesten arrakasta handia. Hori ukazina da.

Hala ere, lore horiek bota ondoren, jakina, kritikakoren bat ere egin beharko zaio zirikatzaile moduan, hemen inor ez baita akatsik gabea; ni lehena naiz aitortzen akastuna naizela.

Hasteko nik esango nuke, Goenkale programa egiten dutenengan, argi eta garbi ikusten dela joera eta alderdikeria, gizarte honen sektore zabal bat baztertzeko eta zokoratzeko. Konparaziora, Goenkaleko saio ugaritan maiz ikusi ahal izaten dugu ilazki euskaltegiaren aldeko propaganda, eta inoiz ez ordea, AEK edota IKaren aldekoa. Hori zergatik? Ez al da egia, bestetik, AEK eta IKA leku

gehiagotan eta hedatuagoak daudela beste euskaltegia baino? Zer dela eta orduan halako manipulazio eta bazterkeria nahita, borondate ona baldin badago? Apika Goenkaleko herria guztiz euskalduna denez gero, helduek ez dute euskalduntzeko eta alfabetatzeko inongo premiarik izanen. Kasu hori, denok dakigu ataritzen dela Euskal Herriko errealitatekin.

Goenkaleko gidoigileei entzuna diet beren asmoa ez dela Euskal Herriko ezaugarri eta problematika guztiak azaltzea. Oso ongi, ulertzen eta onartzen dut, baina buruan erraz sartzen ez zaidana zera da, zergatik beti baztertzen dituzten ideologia jakin baten gora-behera guztiak. Esate baterako, herri horren



kioskoan saltzen dira, *El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkari asko baina dirudienez *Egin* egunkaria eta *Aizu* aldizkaria daudenik ere ez omen dakite. Eta antzeko zerbait gertatzen da EGUNKARIA, *Argia* aldizkaria eta beste batzuekin ere. ETB1 eta Euskadi Irratia ikus-entzuten dituzte baina ez aldiz, *Egin* Irratia; arraro samarrak dira nonbait.

Beste alde batetik ere, ematen du Goenkalekoa herri ideala dela. Ez omen dago ez gizarte gatazkarik, ez istilu politikorik, ezta deus ere. Hor ez baita ikusten edota entzuten batere Ezker Abertzaleari erreferentziarik egiten diotnik. Herri horretan ez omen dago HBko boto-emailerik, edota LABeko afiliaturik, edo Jarraiko gazterik, ezta euskal presorik ere. Denak oso moderatuak dira, antza, ideologiari dagokionez.

Corago esan dut hori guztia sinesgaitza gertatzen dela eta manipulazio kaskarraren kutsua dariola.

Goenkale jarraituko dugu ikusten, baina ez dezala pentsa Iñaki Eizmendik irizpiderik gabekoak garela. ■

## Klasiko bitxi • arroun klasiko

## Joxemiel Bidador

Musikaz blai!: XVIII.  
mendeko ideiak

■ Josulagundiaren kanporaketan erbestetaturik gertatu zen kidegai gazte bat Esteban Arteaga dugu. Honen kasua nahiko bitxia da, eta nahiz eta oso bizitza kanonikoa ez eraman. Menendez Pelayok berauk erregardarritzat hartzen du eta Espainiako erregearen lurraldeetatik aldegnarazitako josulagunekin ororekin maila berean ezartzen du. Nolanahi ere, eta Marcellinok esanak esan, onartu behar da josulagunditik zeharo aparte ibili zela Arteaga Italiara iritsi zenetik. Euskal etorkia zuen Esteban Arteaga, Segovia aldeko Cocako Moralejan sortu zen 1747. urteko abenduaren 26an. 1763. urtean Mantxako josulagun barrutian sartu zen lagunkide. Kanporaketa gauzatu zenean, esan bezala, Italiara abiatu zen Kardaberaz, Mendiburu eta beste euskaldun askorekin, alabaina hantxe lagundia uzteko erabaki sendoa hartu zuen, betiere abate tituluariz muzin egin gabe, lehendabiziko tonsurak ekar diezazkiokkeen ongizate guztiak bereganatu ahal izateko. Azken hau biziki arrunta dugu XVIII. mendera arte, eklesiastikoen eta sekularren arteko muga guztiz malgua eta ez gardena zela, hainbat pertsona mugamarraren gain-gainean zegoen, eta amitz ziren lehendabiziko tonsura jasotzen zutenak, geroxeago bizitza laiko bat eramateko, egoera horrek berebiziko onaurkiak nahiz exentzio guztiak salbuetsi gabe. Bilatu eta nahi izaten zen gauza genuen, apeza izateko inolako asmorik ez izan ere, abondo abantaila ziurtaturik gertatzen zirelako, eta hagituz gutxi baitzen hortan sartzeko eskatzen zena, latinaren ezagupen apurrak eta kristau dotrinaren oinarrikoak. Bolonia hirian jarraiki zituen ikasketak eta ber hiriko Alberghetti-Capacelli markisa kardinala antzerkigilearen babesarekin erdietsi zuen, baita Martini aita ospetsuaren interesik gabeko eskaintza bere liburutegia erabili ahal izateko. Bere mezenasekin izandako gora-behera latzak zirela eta, Erromara aldatu zuen bizitokia Azararengana. Nibbianoko markisa zen Jose Nicolas Azara Espainiako enbaxadorea Vatikanon izan zen, artista askoren mezenas, besteak beste Anton Raphael Mengs margolari neoklasiko txekiarrarena, Carlos III. erregearen erretratatzaila. Diplomatiakoak Parisera egin behar zuen bidala batean aurretik joana zen Arteaga, eta Senako hiriko karraketan izandako istripu larri baten eraginez hil zen 1799. urtean. Italian bere sorterrian baino hagituz ezagunagoa agitu den Arteagak bi lan bereziki ikiriatu zituen, *Le rivoluzioni del teatro musicale italiano dalla sua origine fino al presente*, bi liburukitan, Boloniako Carlo Trentinerean, 1783-1788 urte bitartean, eta *Investigaciones filosoficas sobre la belleza ideal considerada como objeto de todas las artes de imitacion*, Madrilen, 1789.ean. Bigarren honetan ikuspuntu erabat aristoteliko batetik abiatzen da, imitazioarena alegia, bigarren neoplatoniko batekin erkatzen dena, hots edertasun ideala. Bien arteko neurrizko nahasketak bere garaierako aurrerakoiak izan zitezkeen teoriak erditzen zituen, esate baterako, itsusia arteen objektu bezala, arte idealista eta naturalistaren arteko ezberdintasunaren ahultzea, eta sentimenduen garrantzia, bere neoklasizismoa erromantizismoaren aurreko bilhurtzen zuten gauzak. *Rivoluzioni* idazkia opera Italiarraren historia bat dugu, Italiako antzerki musikalaren historia filosofikoa egiteko saioa, gustu onaren abiapuntu neoklasikotik proposatutako saiakera bat betiere barrokoaren aurkako erantzun gisa. Drama musikalaren analisi zehatz-mehatza egiten ahalegindu zen, eta Wagnerren idealari aurrea harturik, arte guztien bilduma armonikotzat hartu zuen opera, bertan literatura, musika, erakuntza, pintura, mimoa eta dantza elkartzen baitira, gaur egungo zinematik dagien antzera genererake. Edertasun idealari buruzko bigarren idazlanean ezohikoak zirenak ziotsan Arteagak: *Bere dantzaren ideala, gelako dantza del dezakeguna, gizakien gorputzak egin ditzakeen higidurarik ltrainez osotu kontzeptu bat dugu, begien aitzinean mugimendurik proportzional eta atseginen aurkeztea da, dantzariaren oinek zoluko oien gainean adieraz ditzaketen edertasunaren irizpideak, eta azkenik, profil eta iduriaren atontzea osotasun simetrikoa sortzeko eta ordena, zaitien erlazio eta banakoarekin loturik doan aniztasunaren eredia eskatitzeko.*

Domingo Agirrerena delako akats filosofiko baten argitzeko saioa izan genuen. Ezer gutxi da egileaz dakiguna. Militarra, ingeniariaren brigadako jenerala, teklazko soinetresnekin zerikusirik zuen notazio musikala berria proposatu zuen Madrilen 1799.ean agertarazi bere *Descubrimiento de un error filosofico* izkribuan. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko bigarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 28an jokatu.

Vadim Zvjaginsev (Errusia), 2.600 ELOkoa — Ljubomir Ljubojevic (Jugoslavia), 2.600 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zc3,Ab4; 4.Zf3,c5; 5.g3,0-0; 6.Ag2,d4; 7.Zd4,d5; 8.d5,Zd5; 9.Db3,Da5; 10.Ad2,Zc6; 11.e3,Da6; 12.Zc6,c6; 13.Ad5,Ac3; 14.Ac4,Ad2 xa; 15.Ed2,Da5 xa; 16.Ee2,Dh5 xa; 17.f3,e5; 18.e4,Dh3; 19.Ef2,Ae6; 20.Af1,Dh5; 21.Dc3,aG-d8; 22.Ag2,f5; 23.f5,Df5; 24.hG-d1,Ad5; 25.Eg1,dG-e8; 26.Ge1.

Ikus koadroa. Zurien posizioa ez da erraza, baina konponbidea aurkituko diote.

26....,Af3; 27.Db3 xa,Gf7.


'Eh8' egin izan balute peoi bat irabaziko zuket, nahiz eta aldaketan ondoren defenditzea zaila izan.

28.Af3,Df3; 29.Ge5,Ge5; 30.Db8 xa,Gf8; 31.De5.

Une honetan partida berdindu da. Ez dago hausteko modurik.

31....,Df2 xa; 32.Eh1,Df3 xa; 33.Eg1,Df2 xa; 34.Eh1,h6; 35.Ge1,Df3 xa; 36.Eg1,Df2 xa; 37.Eh1.

Berdinduta utzi zuten. Beltzek agian gehiago saiatzeko aukera izan eta gero.





# Horbela, baso mintegien elkarte

Joan den irailaren 6an sortu zen elkarte, eta herrialdeko bost nekazarik osatzen dute


**H**orbela elkarte sortu berri dute Nafarroan. Gure herrialdeko bost baso mintegietako nekazariak bildu dira bertan, orain arte pairatu duten egoera aldatu nahian. Izan ere, baso landareen ekoizpenaren eremuan, bertako Administrazioak du monopolioa gure herrialdean. Monopolioa apurtu ezezik, bertako landareak bultzatu nahi dituzte nekazariok, baita kalitatea zaindu ere.

Edure Elizondo / Iruñea

ORAIN dela hilabete, irailaren 6an hain zuzen, elkarte berria sortu zen Nafarroan, Horbela izenekoa. Horbelak gure herrialdean dauden bost baso mintegiak biltzen ditu: Barindanoko Ametza, Morionesko Ubani, Bidaurretako Sustrai, Garesko Artea eta Mendigorriako Invermendi. Bosten artean, bi milioi eta erdi landare ekoizten dituzte, 70 espezie baino gehiagokoak. Horietako gehienak, gainera, bertokoak dira, hori baita Horbela sortu berriaren helburu nagusietako bat, «bertako espezieak bultzatzea». Halaxe azaldu digu Fulgencio Sutil Sustrai baso mintegiko nekazariak. Bertakoa bultzatu ezezik, aniztasuna, dibertsifikazioa eta kalitatea azpimarratu ditu berak Horbelako produktuen ezaugarritzat. Lora-gintzaren alorrean ere ezaugarri hauek aintzakotzat hartu beharoko lirakeela uste du Sutilek, «aspaldian baztertu ziren landare motak berreskuratzeko».

Fulgencio Sutilek bost bat urte darama baso mintegien alorrean lanean. Berotegi txikia zuen hasieran, eta orain, berriz, handixeagoa. Berak bezala, ibilbide laburra dute atzean gainontzeko mintegietako nekazari gehienek ere, «pixkanaka egin behar baitugu aurrera». Elkarte sortzea urrats garrantzitsua izan da euren bidean. Horbelaren bidez bost nekazariok lortu nahi dituzten helburuak ere garbiak dira: «Kalitatezko landareak ekoiztu eta elkarte biltutako nekazarien interesak defenditu eta babestu».

Nekazariok ekoizten dituzten landareak eta zuhaixkak, oro har, basoak berritzeko izaten dira, baina nekazal lurraldeak, harrobiak edo zaborteziak lehen-goratzeko ere erabiltzen dituzte. Landare hauek lortzeko, haziak biltzea da egin beharreko lehen lana, eta hau udazkenean egiten dute nekazariok. «Gehienak Nafarroan bertan laguntzeko alor honetako eskoletako ikasleak ere hartzen dituzte Horbela elkarte-



Bertako landareak bultzatu nahi dituzte Horbela elkarteko kideek.

HORBELA



70 espezie ezberdin eta bi milioi eta erdi landare ekoizten dituzte Horbelako nekazariok.

HORBELA

## Horbela Econavarran

HORBELAREN bidez euren lana ezagutzera eman nahi dute elkarteko bost kideek. Lehen aukera asteburu honetan bertan izanen dute Econavarra ferriaren bidez. Gaur eta bihar, hain zuzen, Kontsumo Berdearen Erakustaldiaren barruan izanen da Horbela, Iruñeko Gotorlekuko Mistoaren Aretoan. Fulgencio Sutilen aburuz, aukera garrantzitsua da beraiatzat azoka honetan parte hartu ahal izatea, «gure helburua jendeak hemen gaudela jakin dezala baita. Orain arte Administrazioak baztertu egin gaitu. Elkarte eta au-

rre egiteko prest gaudela ohartuko dira orain».

Kontsumo Berdearen Erakustaldia Econavarra taldeak antolatu Kultur Ekologikoaren Astearren barruan egingen dute gaur, bihar eta etzi. Horbela elkarteak ezezik, ekoizpen eta kontsumo ekologikoarekin zerikusirik duten beste hainbat talde eta elkarte ere hartuko dute parte.

Aurtengoa Econavarra azokaren hirugarren ekitaldia izanen da, eta honen bidez, hain zuzen, proiektu hau behin-betiko sendotu nahi dute antolatzaileek. Kontsumo

Berdearen Erakustaldiaz gain, beste hainbat ekitaldi prestatu dituzte horretarako. Nafarroako Nekazari-tza Ekologikoaren Erakustaldia egingen dute, batetik, hirugarren aldiz. Eskulangintza erakusketa, Elkarte Ekologisten hirugarren erakusketa eta Nafarroako nekazari-tza turismo ekologikoaren erakusketa prestatu dituzte bestetik. Aurtengo ekitaldiak, halaber, ekarri du berrikuntzarik eta lehen aldiz Kontsumo Ekologiko, Arduratsu eta Solidarioari buruzko jardunaldiak egingen dituzte Iruñeko Gotorlekuan. Hitzaldi

eta mahainguruak ezezik, gazte eta helduentzako tailerrak ere izanen dira, eta Produktu Ekologikoaren Kontsumitzaileek, elkarteek eta kooperatibek bilkura egingen dute bertan.

Arteak ere izanen du txokorik Econavarraren baitan. Besteak beste, Artefacto Alicia Otaegiren instalakuntza ikusgai izanen da, baita Arte eta Ingurugiroa margo lehiaketako hamalau lan ere. Musikarako tarterik ere izanen da Gotorlekuan. Hortxe izanen dira Ezpelur gaiteroak eta Ardatza taldeko txistulariak, besteak beste.

ko nekazariok, «praktikak egin ahal izan dituzten. Izan ere, jende asko ari da ikasten eta aterabide gutxi dute».

**Monopolioaren aurka** • Nafarroako baso mintegietako nekazari hauek Asturias, Katalunia edo Leon aldean saldu behar izaten dituzte euren produktuak, Nafarroan bertako Administrazioak baitu eskusiba. Fulgencio Sutilen eta alor honetan lanean ari diren gainontzeko nekazarien irudikoz, «egoera hau ez da bidezkoa», eta beste eremuetan dagoen merkatu askatasuna eskatzen dute baso landareen ekoizpenaren arloan ere, «baldintza berdinetan lehiatu ahal izateko».

Hori izan da, hain zuzen ere, Horbela sortzeko arrazoietako bat. «Arazo honi aurre egin nahi badiogu, elkarteak da dugun bide bakarra». Sutilen ustez, «jendeak hemen gaudela jakin behar du, baita Administrazioako agintariok ere».

Horbela sortu denetik dagoeneko bi bilera egin dituzte nekazariok Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Saileko arduradunekin, Mendi Departamentua sail

Horbelen bidez bost nekazariok lortu nahi dituzten helburuak garbiak dira: «Kalitatezko landareak ekoiztu eta elkarte biltutako nekazarien interesak defenditu eta babestu»

horren barruan baitago orain, eta oraingo ez gutxi lortu badute ere, itxaropentsu ageri da Sustrai baso mintegiaren jabea. Oraindik bizi duten egoera, dena den, ez da nolana hikoia, ez baitu Administrazioaren mintegiak beste inorendako lekuri uzten. Sutilen hitzetan, gainera, «ez dute bakarrik Nafarroako beharrak betetzeko produzitzen, baita gehiago ere».

Baso landareen alorrean lan egiten duten nekazariok kaltegarria bada ere, Nafarroako Administrazioaren monopolioa landareen kalitatearen kalterako ere bada Sutilek azaldu duenez, «ez baitu inork ziurtatzen edo kontrolatzen».

Mintegien inguruan Administrazioak izan duen monopolioa ez da bakarrik Nafarroan gertatu. Fulgencio Sutilen salatu duenez, «Estatuan Tracsa enpresa publikoak gauza bera egin du». Auzia epaitegien esku dago gaur egun, lehia desleiatatik. «Epaileek euren erabakia noiz plazaratuko duten zain gaude, ea hemen ere nolabaiteko oinarria ezartzen duten». Nafarroan Administrazioen mintegiak duen monopolioari ihes egitea, baina, ez da batere erraza izan bere ustez, «inbertsio handia egin baitute bertan». X



◆ Aurkene Ortiz ◆ AEK-ko Nafarroako burua

## «Erabilera bultzatu behar dugu»

**U**rriarekin batera abiatu da Nafarroan AEKren ikasturte berria. Aurtengoak, gainera, ekarri du berrikuntzarik, Euskal Herri osoa euskalategi eta euskaldun guztiak irakasle bihurtu nahian. Hori lortzeko, metodologia berria garatu, edo, hobeto erranda, orain artekoari bultzada berria emanen dio AEK-k, euskararen erabilpena ikasgelan ezetik kalean ere gauzatu dadin.

Eduñe Elizondo / Iruñea

JARAUTA kaleko bigarrenean AEK-k duen egoitzan aurkitu dugu Aurkene Ortiz, ikasturte berria hastear dagoela. Euskara irakasteko metodologia berri horretaz mintzatu gara berarekin, beste hainbat gauzaren artean.

■ **Zertan datza abian jarri behar duzuen euskara irakasteko eta ikasteko metodologia berri hori?**

Hasieratik, klase bakoitza ongi ezagutzen saiatzen gara gu, klasearen azterketa egiten dugu, ikasleek duten motibazioa ezagutzeko, euren errealitate linguistikoa zein den jakiteko eta abar. Euren inguruan zer euskaldun kopurua dagoen jakiten saiatzen gara, ikusteko euren harremanak euskaraz garatu ahal izateko zer aukera duten. Iaz, hori guztia kontuan hartuz, lan talde bat sortu zen ikasleen errealitate horren neurriko programazio berria sortzeko. Eta hori da aurtengo berrikuntza, hau da, gure helburu horiek guztiak bete ahal izateko programazio berria praktikan jarriko dela urrats guztietan.

■ **Eta zertuk dira programazio berri horren oinarriak?**

Kezka sortu digu Gobernu berriak, UPN inoiz ez baita gurekin hitz egiteko gai izan orain artean»

AEKren historian, metodologia aldetik hobetzen joan gara urtetik urtera. Orain argi dugu metodo komunikatiboan sakondu behar dugula, eta, era berean, erabilera bultzatu. Azterketa soziologiko guztiek ondorio horiek plazaratzen dituzte. Hori dela eta, erabilera bultzatzen saiatu gara metodologia berri honen bidez. Eta ez da erraza, erabilera norberaren aukera pertsonala baita, eremu pribatuaren barruan.

■ **Nola bultzatu daiteke euskararen erabilera ikasgelatik kanpo?**

Gure metodologia berri honi Kulturgintza izena jarri diogu, kulturaren bidez bultzatu nahi baitugu, hain zuzen ere, euskararen erabilpena. Aurreko ikasturteetan ere jorratu genuen arlo hau, baina aurtengo bultzada berezia emanen diogu ikasgelatik kanpo garatzen diren ekintza hauei guztiak. Alde batetik, guk geuk sortu eta antolatzen ditugu hainbat kultur ekintza, eta, bestetik, zenbait talde osatzen ditugu klasetatik kanpo aisia betetzeko, dantza edo mendigoizaleen taldeak eta Txantreako abesbatza, kasurako. Ikasle eta irakasleek ezetik, auzo edo herri bakoitzeko euskaldunek ere hartzen dute parte. Honela, harremanak sortzen dira euren artean. Kultur ekitaldi hauen bidez ikasgela eta kalea harremanean jarriko ditugu euskararen erabilera bultzatzeko, ikasleak kanpoko eragina jasotzen du, baina, era berean, bere ingurunean eragiteko aukera ere badu.

■ **Joan den ikasturtean aurkeztu zenuten Solas-jolas bilduma ere bada zuen proiektu berri honen parte.**

Bai, hori izanen da erabiliko dugun materiala. Egia erran, erabiliko ditugun teknikak ez dira berriak, baina aurtengo lagunduta egonen dira material berri honekin. Oso lagungarria izanen da ikasle eta irakasleentzat, eta gure helburuak gauzatzeko ahalbidetuko du.

■ **Ikasleen beharrak ezagutzeko**



Nafarroako AEK-ko burua da Aurkene Ortiz.

JOXE LACALLE

ahalegina egin duzuela aipatu duzu. Funtsezkoa al da hori ikasketa prozesua behar den bezala gauzatzeko?

Bai, hala da. Aurtengo, saio berezia egiten dugu ikasleen ingurune errealerara hurbiltzeko. Horregatik, oso inportantea da guretzat, euskalategi handiak sortu beharrean, auzoetan eta herrietan kokatzea, ikasleen errealitate horretan, herritik edo auzotik atera gabe euskara ikas dezaten. Aurtengo matrikulazio kanpian, hain zuzen, isla izan du jada gure ahalegin honek. Erran beharra dago Iruñerriak eutsiko diela orain arte zabalik ziren zentroei, baina, oro har, hemeretzi puntutan ariko da AEK, hau da,

hainbat gau eskola berri izanen ditugu eta gehiago zabaldu ditugu klaseak. Eta gauza bera gertatu da Nafarroa osoan, ikasleengana hurbildu gara.

■ **Esfortzu handia egin beharko duzue, irakasleen aldetik batez ere.**

Zalantzarik gabe. Gure ustez, leku bakoitzean bertako irakasleak izatea da hoberena, baina beti ezin dugu hori lortu. Hori dela eta, gehienetan irakasleak beste lekuetatik mugitu beharrean daude. Ahalegin berezia da guretzat, baina merezi du; gure ustez hori da bidea.

■ **Beste gai bati helduz, Nafarroako Gobernuarekin hasi zenuen elkarriketak bertan**

s o s l a i a

Lizarran jaioa da Aurkene Ortiz, Nafarroako Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeko arduraduna. Euskararen munduan ere, bertan eman zituen bere lehenengo urratsak. Lizarrako euskalategira euskara ikastera joan zen lehendabizi, eta, ondoren, bertako irakasle izan zen.

\*

Lizarratik Iruñera etorri zen Aurkene Ortiz, eta hemen eman ditu azken urteak. Irakasle izan zen Iruñean ere lehenik eta behin, eta orain dela bi urte, Nafarroako AEK-ko arduradun edo buru izendatu zuten. Lan horretan dabil, hain zuzen, gaur egun.

\*

Eta AEK-ko arduraduna denez, euskaldun guztiak euskaraz bizi ahal izatea da bere helburua. Eta helburu hori aurtengo abian jarri duten metodologia berriari esker bete nahi du. Horretarako, gizarte guztiaren inplikazioa behar-beharrezkoa dela uste du Aurkene Ortiz Nafarroako AEK-ko arduradunak.

behera gelditu ziren. Gobernu berria sortu ondoren, zer-nolako etorkizuna aurreikusten duzue?

Gobernu berri honekin, batez ere kezka handia dugu, badakigulako denok lehen egon zirenean zer egin zuten. Atera berri den hiruko Gobernuak ez zuen beste munduko gauzarik egin, baina behintzat hitz egiten hasteko gai izan zen. AEK-k beti egin ditu ahaleginak talde politiko guztiekin harremanak izateko eta hitz egiteko, eta UPNK ez gaitu inoiz hartu, inoiz ez dio gure deialdiari erantzunik eman. Beraz, kezka sortzen zaigu orain. Hitz egiteko ere ez direla gai izanen beldur gara. X

P A N E  
LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
31

GAUR:  
— IPUIN —  
— BELDURGARRIA —

J.J. Arcoia

